

EUSKERA SAILA

48370 BERMEO
BIZKAIA

Erf: 2023/IDA_ERA_0042

JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZIOA

2023ko Iraila 05 (e)an izandako batzarrean, **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** erabagi hau hartu dauela jakinarazoten deitu(e)t:

6-GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2023. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.**Xedea**

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, 2020-22 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Berariazko Oinarriak onartu zituen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: 2020-22 epealdirako urtez urteko dirulaguntza deialdiak onartu eta zabaltzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak; 2020ko azaroaren 10eko, 2021eko maiatzaren 11ko eta 2022ko uztailaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarretan, hurrenez hurren. Deialdi horiek udalaren webgunean, BDNS datu basean eta BAOn argitaratu ziren.

Laugarrena: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-25 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bosgarrena: 2023ko martxoaren 21ean kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin zuen.

Seigarrena: 2023ko martxoaren 21ean administrazio orokorreko teknikariak, 2023/19txostena egin zuen.

Zazpigarrena: 2023ko martxoaren 31n, udal Osoko Bilkurak, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen berariazko oinarriak aldatzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko maiatzaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Zortzigarrena: Kontu-hartzaileak, 2023ko abuztuaren 2an, aldeko txostena egin du.



Argudioak

Lehenengoa: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2023ko ekainaren 29ko 000003096 zenbakidun Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak, ahobatez, honako ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2023. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko maiatzaren 12an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean eta BAO n argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

Honen guztiaren barri emoten deus(e)t jagokozan ondorioetarako.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000D5B1F00C4E9K0D7A4T5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/09/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/09/2023
09:36:21

DOCUMENTO: 20230875295

Data: 05/09/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidada:
Erregistro nagusia



CSV: 07E7000D5B1F00C4E9K0D7A4T5